

**Udalbatzako kideen dedikazio eskusiboa. Ordainsariak. Bileretara joategatiko dietak. Talde Politikoentzako diru-esleipenak.**

Udalbatzak, bi mila eta hemeretzi uztailaren hogeita lauan egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

**LEHENENGOA.-** Alkate-Presidenteak dedikazio eskusiboaz beteko du bere kargua, Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32.2 atikuluan xedatutakoaren arabera dagokion eskubidea erabiliz. Horretarako, bere ohiko lanaldia 8:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da, aldatu badaiteke ere, adierazitako ordutegitik kanpo bere benetako presentzia behar duten atzen arabera.

Dedikazio eskusibo horrek berarekin dakar alta ematea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, udalak bere gain hartzen dituela dagozkion enpresa-kuoten ordainketa.

Alkate-Presidente kargua betetzeagatik jasoko diren ordainsari guztiak doitu egin beharko dira Bizkaiko Toki Erakundearen aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauan ezarritako mugetara. Hori dela eta, kontzeptu honen urteko zenbateko gordina 60.373,18 eurokoa izango da (14 hilabetean jasoko da).

Dena den, eta bat etorri Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziazat hartu diren Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak igotzen diren heinean.

Kontuan harturik Alkate-Presidenteak bere eskubidea erabili duela kargua hartu zuenetik, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko altak zein aipatutako ordainsariak eraginkortasuna izango dute 2019ko uztailaren 15etik aurrera, hots, Trapagarango Udaleko Alkate-Presidente karguaz benetan jabetu zen egunetik aurrera.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Udal Arautegian jasoko dira aipatu araubide eta dedikazioarekin lotutako gaiak eta ondoren egiten diren urteko aldaketak.

Dena den, adierazitako ordainsaria jasotzea ez da bateragarria izango beste Administrazio Publiko eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuaren konturako ordainsariak jasotzearekin eta beste jarduera batzuk burutzearekin, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Halaber, Alkate-Presidenteak Valle de Trápaga/Trapagarango Udaleko langileen lan-baldintza berak izango ditu Gaixotasun, Istripu edo Aseguramenduari dagokienean, azken kasu horretan, bat etorri Udalak kontratatutakoarekin.

**BIGARRENA.-** Dedikazio eskusiboa ematea Ogasun eta Ondareko Informazio-Batzorde

Iraunkorreko eta Kontuen Batzorde Bereziko batzordeburu eta, era berean, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio-Batzorde Iraunkorreko batzordeburu den zinegotzi delegatuari, aztertu eta gero bere karguari dedikatzeko urtean orotara behar duen gutxi gorabeherako denbora, kontuan hartuta esleitzen zaizkion erantzukizunak, eskumen eskuordetuetan duen partaidetza edo Alkate-Presidenteak udalean laguntzeko agindu liezaizkiokeenak. Horretarako, bere ohiko lanaldia 8:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da, aldatu badaiteke ere, adierazitako ordutegitik kanpo bere benetako presentzia behar duten atazen arabera.

Dedikazio eskusibo horrek berarekin dakar alta ematea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, udalak bere gain hartzen dituela dagozkion enpresa-kuoten ordainketa.

Aipatutako kargua betetzeagatiko ordainsariaren urteko zenbateko gordina 42.000 eurokoa izango da (14 hilabetetan jasoko da).

Dena den, eta bat etorri Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat hartu diren Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak igotzen diren heinean.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Udal Arautegian jasoko dira aipatu araubide eta dedikazioarekin lotutako gaiak eta ondoren egiten diren urteko aldaketak.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko altak zein aipatutako ordainsariak eraginkortasuna izango dute Alkate-Presidenteak izendatzen duen egunetik bertatik.

Dena den, adierazitako ordainsaria jasotzea ez da bateragarria izango beste Administrazio Publiko eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuaren konturako ordainsariak jasotzearekin eta beste jardura batzuk burutzearekin, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Halaber, izendaturiko zinegotziak Valle de Trápaga/Trapagarango Udaleko langileen lan-baldintza berak izango ditu Gaixotasun, Istripu edo Aseguramenduari dagokienean, azken kasu horretan, bat etorri Udalak kontratatutakoarekin.

**HIRUGARRENA.-** Dedikazio eskusiboa ematea Sustapen Ekonomiko eta Enpleguko Informazio-Batzorde Iraunkorreko batzordeburu den zinegotzi delegatuari, aztertu eta gero bere karguari dedikatzeko urtean orotara behar duen gutxi gorabeherako denbora, kontuan hartuta esleitzen zaizkion erantzukizunak, eskumen eskuordetuetan duen partaidetza edo Alkate-Presidenteak udalean laguntzeko agindu liezaizkiokeenak. Horretarako, bere ohiko lanaldia 8:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da, aldatu badaiteke ere, adierazitako ordutegitik kanpo bere benetako presentzia behar duten atazen arabera.

Dedikazio eskusibo horrek berarekin dakar alta ematea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, udalak bere gain hartzen dituela dagozkion enpresa-kuoten ordainketa.

Aipatutako kargua betetzeagatiko ordainsariaren urteko zenbateko gordina 42.000 eurokoa izango da (14 hilabetetan jasoko da).

Dena den, eta bat etorri Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat hartu diren Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak igotzen diren heinean.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Udal Arautegian jasoko dira aipatu araubide eta dedikazioarekin lotutako gaiak eta ondoren egiten diren urteko aldaketak.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko altak zein aipatutako ordainsariak eraginkortasuna izango dute Alkate-Presidenteak izendatzen duen egunetik bertatik.

Dena den, adierazitako ordainsaria jasotzea ez da bateragarria izango beste Administrazio Publiko eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuaren konturako ordainsariak jasotzearekin eta beste jarduera batzuk burutzearekin, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Halaber, izendaturiko zinegotziak Valle de Trápaga/Trapagarango Udaleko langileen lan-baldintza berak izango ditu Gaixotasun, Istripu edo Aseguramenduari dagokionean, azken kasu horretan, bat etorri Udalak kontratatutakoarekin.

**LAUGARRENA.-** %75eko dedikazio partziala ematea Euskara, Hezkuntza, Kultura, Gazteria, Teknologia Berriak, Herritarren Partaidetza eta Auzoen Informazio-Batzordeko batzordeburu den zinegotziari, aztertu eta gero bere karguari dedikatzeko urtean orotara behar duen gutxi gorabeherako denbora, kontuan hartuta esleitzen zaizkion erantzukizunak, eskumen eskuordetuetan duen partaidetza edo Alkate-Presidenteak udalean laguntzeko agindu liezaizkiokeenak. Horretarako, bere ohiko lanaldia %75ekoa izango da eta, batez ere, goizez beteko da (8:00etatik 15:00etarako ordu tartean), aldatu badaiteke ere, adierazitako ordutegitik kanpo bere benetako presentzia behar duten atazen arabera.

Dedikazio eskusibo horrek berarekin dakar alta ematea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, udalak bere gain hartzen dituela dagozkion enpresa-kuoten ordainketa.

Aipatutako kargua betetzeagatiko ordainsariaren urteko zenbateko gordina 31.500 eurokoa izango da (14 hilabetetan jasoko da).

Dena den, eta bat etorri Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat hartu diren Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak

igotzen diren heinean.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Udal Arautegian jasoko dira aipatu araubide eta dedikazioarekin lotutako gaiak eta ondoren egiten diren urteko aldaketak.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko altak zein aipatutako ordainsariak eraginkortasuna izango dute Alkate-Presidenteak izendatzen duen egunetik bertatik.

Dena den, adierazitako ordainsaria jasotzea ez da bateragarria izango beste Administrazio Publiko eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuaren konturako ordainsariekin eta beste jarduera batzuk burutzearekin, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Halaber, izendaturiko zinegotziak Valle de Trápaga/Trapagarango Udaleko langileen lan-baldintza berak izango ditu Gaixotasun, Istripu edo Aseguramenduari dagokionean, azken kasu horretan, bat etorri Udalak kontratatutakoarekin.

**BOSGARRENA.-** %25eko dedikazio partziala ematea Tokiko Merkataritza eta Ekintzaileen Informazio-Batzorde Iraunkorreko batzordeburu den zinegotzi delegatuari, aztertu eta gero bere karguari dedikatzeko urtean orotara behar duen gutxi gorabeherako denbora, kontuan hartuta esleitzen zaizkion erantzukizunak, eskumen eskuordetuetan duen partaidetza edo Alkate-Presidenteak udalean laguntzeko agindu liezaizkiokeenak. Horretarako, bere ohiko lanaldia %25ekoa izango da eta, batez ere, goizez beteko da (8:00etatik 15:00etarako ordu tartean), aldatu badaiteke ere, adierazitako ordutegitik kanpo bere benetako presentzia behar duten atazen arabera.

Dedikazio eskusiborrek berarekin dakar alta ematea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, udalak bere gain hartzen dituela dagozkion enpresa-kuoten ordainketa.

Aipatutako kargua betetzeagatiko ordainsariaren urteko zenbateko gordina 10.500 eurokoa izango da (14 hilabetetan jasoko da).

Dena den, eta bat etorri Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat hartu diren Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak igotzen diren heinean.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Udal Arautegian jasoko dira aipatu araubide eta dedikazioarekin lotutako gaiak eta ondoren egiten diren urteko aldaketak.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko altak zein aipatutako ordainsariak eraginkortasuna izango dute Alkate-Presidenteak izendatzen duen egunetik bertatik.

Dena den, adierazitako ordainsaria jasotzea ez da bateragarria izango beste Administrazio

Publiko eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuaren konturako ordainsariekin eta beste jarduera batzuk burutzearekin, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Halaber, izendaturiko zinegotziak Valle de Trápaga/Trapagarango Udaleko langileen lan-baldintza berak izango ditu Gaixotasun, Istripu edo Aseguramenduari dagokionean, azken kasu horretan, bat etorritik Udalak kontratatutakoarekin.

**SEIGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.3 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, dedikazio partzial edo eskusiborik ez duten Udalbatzako kideek diru-kopuru hauek jasoko dituzte kide anitzeko organo desberdinetara joateagatik:

**A) OSOKO BILKURARA JOATEAGATIK**

Zinegotzi guztientzat, ohiko eta ezohiko osoko bilkuretara joateagatik:

150 €/osoko bilkura

**B) TOKIKO GOBERNU BATZARRERA JOATEAGATIK**

Zinegotzi guztientzat, ohiko eta ezohiko batzarretara joateagatik:

112,65 €/batzarra.

**C) INFORMAZIO BATZORDEETARA JOATEAGATIK:**

Zinegotzi guztientzat, batzordeburu edo kide izan, ohiko eta ezohiko informazio batzordeetara joateagatik:

100 €/informazio batzordea.

Tokiko Gobernu Batzarretara eta Informazio-Batzordeetara doazen zinegotziek muga bat izango dute ordainduko zaizkien asistentzia kopuruari dagokionean, hots: Tokiko Gobernu Batzarreko kideei gehienez 7 asistentzia ordainduko zaizkie, lehentasuna emanaz Tokiko Gobernu Batzarrera joateari eta, ondoren, batzordeetara joateari. Tokiko Gobernu Batzarrekoak ez diren gainerako zinegotziei, gehienez, 6 asistentzia ordainduko zaizkie.

Tokiko Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.3 artikuluan xedatutakoaren

arabera, asistentziagatiko diru-kopuru hauek kobratzeko, benetan joan beharko da bileretara. Hortaz, aurkeztutako justifikazioak kontuan hartuko dira baina zinegotziek kide anitzeko organoetara joateko duten betebeharrak politikoaren ondorioetarako, ez ondorio ekonomikoetarako.

Sortutako diru-kopuruak dagokien hilabetea amaitu ondoren ordainduko dira.

**ZORTZIGARRENA.-** Joan-etorri, janari, gaua igarotze eta abarreatatik dietak zinegotzi guztientzat izango dira langileentzat bezalakoak, araubideari eta zenbatekoari dagokienean, langileen Hitzarmenean horri buruz jasota dauden xedapenak hertsiki aplikatu beharko direlarik.

**BEDERATZIGARRENA.-** Taldeei esleitutako diru-kopuruak eta kide anitzeko organoetara joateagatik finkaturikoak ondorioak izango dituzte erabaki hau Osoko bilkuran hartzen denetik hasita.

**HAMARGARRENA.-** Erabaki hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Oholean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 75 artikulua 5. atalean xedatutakoa betetzeko. Halaber, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua arabera, erabaki hau Valle de Trápaga/Trapagarango udaleko Gardentasun-atarian argitaratuko da.

**HAMAIKAGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea interesdunei eta Kontu-hartzaitza eta Diru-zaintza zerbitzuei, kudeatu eta betearazi dezaten.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2019ko abuztuaren 7an.

JARDUNEKO ALKATEA

Javier Pérez de Palomar Alonso